


BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honen bitartez guk sortutako aplikazioa aurkeztuko dugu, eta aldi berean, haren eginkizuna, helburua eta funtzionamendua ulertaraziko dizuegu.

Gure produktuaren helburu nagusia denbora aurrezte da, horrela, jendeari egunerokotasuna asko errazten diogulako. Horretarako, garraio publikoan egon daitezken akatsak aurreikusi eta horiei buruz erabiltzailea ohartaraziko dugu GPA deituriko aplikazio baten bitartez (Garraio publikoaren aurrerapena). Orokorrean, gure bezeroei garraio publikoa erabili baino lehen beraiek hartuko duten garraioak atzerapenik duen ohartarazteko balio du gure aplikazioak, izan ere, garraio publikoaren eragozpenak edo trafiko arazoekin jendeak denbora asko galtzen duela frogatu dugu eta hori aldatu nahi dugu.



Lehenik eta behin, gure aplikaziora sartzerakoan, taula moduko bat ikusiko du erabiltzaileak. Taula horretan handien azalduko diren aukerak garraio motakoak izango dira, hau da, **autobusa** edo **trena**, behin hori aukeratutakoan nondik nora bidaiatu aukeratu beharko du erabiltzaileak. Bukatzeko, “orain irten” botoia klikatuz, ordua aukeratzeko aukera izango du. Behin dena aukeratuta, erabiltzaileak bilatutako autobus edo trenak arazo edo atzerapenik duen ohartaraziko diogu erabiltzaileari.




Gure produktua, edozeinek erabiltezeko moldatuta dago. Bere erabilera oso erraza izango da, bi klik eginez Gipuzkoako autobus eta tren publiko guztik zehazki non dauden ikus daiteke. App-a instalatzen duten pertsonen eta erabilera ohikoa egiten dutenek, erabiltzen duten trenen edo autobusen ordutegia gordetzen zaie App-an. Orduan, atzerapen edo aktualizazioen bat badago ordutegia notifikazio bat iritsiko zaie mugikorrera edo ordenagailura.

Gure produktuaren abantaila naguesienetako bat erabilera oso erraza dela da, mugikor edo tablet bat erabiltzeko gai den edonor aplikazioa erabiltzeko gai da. Horrez gain, dohain da, beraz, ekonomikoki ez dago arazorik aplikazioa eskuratzeko. Baina, dohainik den bertsioan iragarkiak egongo dira noizean behin. Hala ere, 3,99€-ko kuota bat hilabetero ordainduz, iragarkiak kentzeko. Aldi berean, erabiltzaileak garraioan beti eserleku bat edukitzeko abantaila edukiko du. Hau da, hartu behar duzun autobusean beti edukiko duzu eserleku bat zuretzat premiuma instalatuz gero.

Aplikazioak autobus eta tren guztien atzerapen ohartarazteko gaitasuna du, bakoitzak gure enpresarekin sinkronizatutako GPS bat duelako. Orduan, erabiltzaile batek lanera joateko autobusa etxetik atera baino lehen jakingo du arazoren bat izan duen edota behar bezala funtzionatzen ari den. Aplikazioan ikusitakoarekin denbora askoz hobeto kudeatzeko aukera izango du erabiltzaileak..

GPS-ak, gure teknikariak Gipuzkoako autobus eta tren guztietan jartzeaz arduratuko dira. GPS-ak autobusaren aginte-mahiaren azpian jarriko ditugu eta trenen kasuan berdin egingo dugu. Izan ere, estaldura ez galtzeko eta ondo funtzionatzeko leku egokia da.



Horrez gain, aplikazioan arazoren bat edo hobetzeko iradokizunik badituzte erabiltzaileak, aplikazioan bertan guri, hau da, enpresa sortzaileari idazteko aukera dago; honela, aplikazioa perfektzionatzeko gai izango gara bezeroen kritika eta iritzien laguntzaz.

Goran eskubian, hiru puntu agertuko dira, horrekin, erabiltzaileak bere iradozkizun edo arazoak idatzi ahal izango ditu. Iritzi guzti horiek guregana iritsiko dira eta App-a hobetzeko balioko digute. Bukatzeko, hiru puntuetan ezarpenak egongo dira eta ezarpen horietan hizkuntza aldatzeko aukera egongo da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez jarri ahalko da.

